

XII. GAZTAÑERRE AZOKA

Plaentxian azaruaren 10ian (zapatua)

09:00etan

Azokaren hasiera

12:00etan

Bihurriren erakustaldia
Bertsolariak: Lizaso eta Euzkitze

14:30etan

Herri babajana karpan

18:30ean

Xero Xieteren erromeria

24:00ean

Erromeria goizaldera arte



Babajanean izena emateko:
943 75 13 04ra deitu
edo pilpilean@euskalnet.net
Prezioa: 10 euro

Laguntzailea:



Antolatzaileak:



Etorri basarritarrez jantzitta!!!


BAZATOZ GPUNTUAREN BILA?

GPUNTUA
IPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007



Soraluze
eta
Elgoibarko
bertsozaleak
ilunbera
Gpuntuaren
bila!

Gipuzkoako Bertsolari
Txapelketaren Finalerako
AUTOBUSA



Eguna: abenduaren 16a (domeka)

Irteera ordua: 15:00etan Soraluzetik (Gila)

Txartelaren prezioa: 6 euro

Izena emateko azken eguna: azaroaren 26a, astelehena

Izena emateko modua: 943 75 13 04

pil-pilean@euskalnet.net (izen abizena eta telefonua)

Oharra: Finalerako sarrerak erosteko egin erreserba www.gpuntua.com-en
edo bestela deitu edo idatzi Pil-pileanera eta geuk erosiko dizugu.

Antolatzaileak:

Elgoibarko Izarra


eta



Kultura: Dantza Taldearen 50. urteurreneko DVDa kalean da
Entzutekuak: Bihurri aizkolariaren erakustaldia

soraluzeko
hamabostekaria **165.** alea
2007ko azaroaren 9an

pil-pilean



Aritz Sudupe
Soraluzeko artzai gaztea



MAITE KINTANILLA



GOTZON ELIZBURU

URTE OSOKO BASARRITARRAK

Aupa polittori!

Zelan doia dana Bilbao aldetik? Pijotzen hasitta honezkero...kar kar kar. Aspaldixan kapitalera jun eta herrixa ahaztu xamar dakagula emoten dau, baina trankil! Ezin hobeto dakigu gure Plaentxian barrri eta.

Desiatzen nenguan asteburua noiz helduko!! Urte guztia emoten dot egun honetarako indarrak batzen eta jakizu udako festa saiatze danak hortan geratzen dirala!

Gaztainen usainari jarraituta helduko gara danok Erregetxera eta bertan konturatu gaztaina errien usainakin batera beste hainbat perfume natural be badarela. Penia da, baina seguru nago askok eta askok urtian behin baino ez dabezela ama lurran usain honetaz gozatzeko aukerarik izaten. Hala jaok mundua!

Urte batzuk atzera egin eta han ikusiko ginuzen familixa mordo bat basarrixan ortu, ganbara, etxoste eta abarrian jo ta sua lanian. Hazixak landatu eta honen fruituak janaz senide nahiz lagunez josittako etxaldietan. Orduan kaletarrak gutxi batzuk baino ez ziran; gaur egun berriz... Ze gaittuk gu? Basarrixa euki bai, baina...

Askok zapatu honetan gogoratuko dabe basarritxarrak badarela, bizirauten dabela. Hor egoten dira ba, egunero-egunero Martina eta konpainia herrittarrak noiz juango. Etorkizunik ez Gotzon... etorkizunik ez...

Egun bat bai eta bestia baita ama lurra usaintzeko, dastatzeko, sentitzeko... prest Gotz? ☺

“

Asko zapatuan gogoratuko dira basarritarrekin

Maite Kintanilla

Inor gutxi juaten da egunero azokara

Gotzon Elizburu

”

Berdin!! (*eskertzen dira eta noizbehinka hohako loratxuak*)

Loratxuak...loratxuak, barazkixak, etabellarak, eta animalixak, eta... Nik uste plaentxiar gehixenok egun hau iristeko desiatzen egoten garala. Urtian behin gure herriko basarritarrak herrira jeisten dira euren produktuak saltzera. Urtian behin... Urtian behin ez!!! Egunero dauzkagu eta gure basarritarrak azokan!!! Zein gogoratzen da euretaz? Inor gutxi zoritxarrez.

Edozein egunetan, gorbatahun batzuk herriko baserrittarrangana jua eta bere ustiapenak daukazen lurak desjabetuko dotsez, zetarako eta bertan hiper-merkatu bat egiteko, edo AHTia egin eta bertan, abiadura haundixan, kontxintxinako tomate eta patatak ekartzeko. Nora goiaz baina?

Autokritikatxo bat be egin biherra dao. Inor gutxi juaten da egunero azokara, gaur eguneko bizimodu azkarrian nahixago dogulako, asteburuan Eroskira jua eta aste osorako “plastikozko” janarixa erostia, kutsadura eta herriko nekazaritzan desagerpena bultzatuz, xentimo batzuk aurreztien.

Hasieran galdetu dostazu ia pijotu naizen edo(emoten dau enauzula ezagutzen)... ba ez, baina Bilbo bezelako hiri baten, zaila ez; badakizu, kontsumoaren kate eroa.

P.D.: Beste askontzat Gaztañerre, mozkortzeko eguna besterik ez da izango... no comment. ☺

Goquan hartzeko Astoa merkeena non? Illargiko perian!

Esaera zaharra



Iberdrola salatuz

GUTUNAK

Soraluzeko Udaleko Gobernu Taldeak Iberdrola enpresa salatu nahi du, joan den zapatuan, hilak 27, 8etatik 14etara argindarra moztu zuelako. Mozketara aurrez jakinarazi bazen ere, Udalarari nahiz hiru tokitako erabiltzaileei, azkenean, esandakoe-tan baino leku gehiagotan moztu zen argia, udal merkatua eta beste denda batzuk tartean. Toki hauetara azken orduan iritsi zen abisua eta zen-baitetan abisatu ere ez zen egin.

Uste dugu Iberdrola enpresak ez zuela ondo jokatu eta exijitzen dugu hurrengo batean gauzak hobeto egitea, ordu puntetan argia ez mozte eta, moztu behar badu, behar besteko denboraz abisatzea, beharrezko neurriak har ditzagun.

SORALUZKO UDALA GOBERNU TALDEA

DIPOIOAK

Ni naizena naiz,
beltzarana nago,
nahiz eta beltza ez den nire kolorea,
eta iraultzek ez didaten berdin.

Inor ez dago nire kontra,
sinets dezakezue,
nire arma grafia da eta.

Edo ahotsa.

Edo armonika jotzea.

Rokankola nire bizitza da...

Ni oso buruzabala naiz.

Txakurrek osterara, bere "San Martin" a
hegaztiak bezala behar lukete...

Zeruan hegana.

Egunez, edo gauez,

Urduritu egiten naiz...

Dipoioak nazkatuta eduki naute

eta kokoteraino egongo naiz

gaur, atzo, bihar edo etzi, egunero...

Nork asmatu zuen polizia?

Erromatarrak izan behar, noski. K.A.

Gabriel Galan

ATÑUBTAN eta



Zeletako ispiluan ezer ikusten ez dela kexa adierazi dute zenbait herritarrek. "Zikin-zikin eginda dago eta trapua pasatuta ere ez da garbitzen. Gainera, batzuetan mugituta egoten da. Ia udalak garbitze-rik duen".

EGUZKI-BEGIXAN



Marraskilo tour mendi ibilaldian parte hartu zuten askok zoriondu zuten antolakuntza, bideak garbitu eta markatzen egindako lan bikainagatik eta parte hartzaileei emandako zerbitzuagatik. Zorionak!

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563
Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Nerea Isasti
Behi Intelektualak

Manuelak oso entzumen fina dauka. Mozart entzun orduko poz-pozik jartzen da. Bere ur ohetik jaiki, siestatik, bentilagailuaren aurrean jartzen da freskatzeko eta jezteko gurpil handi baterantz abiatzen da. Baina Manuela ez da edozein behi.

Madriletak gertu, Villanueva del Pardillon, badago behientzat luxuzko "spa" bat. Han ez da behien marruzarik entzuten. Behiak jetzi behar direnean, Mozart-en flauta eta arparentzat Do Mayor-eko kontzertua hasitakoan, 700 behiak jezteko makinarentzat abiatzen dira. Erlajazio dutxak hartzen dituzte eta dieta berezia eta psikologoa ere badauzkate. Baina ez hori bakarrik. Erditzeko, banakako paritorioak dauzkate. Behi hauekako batzuen gurasoak Wisconsinetik Iberiako hegazkin batetan heldutako bikotea dira. Adituek diotenez, behi hauek esne gehiago eta kalitate hobegokoa ematen dute

Nonbait irakurri dut duela gutxi: "behiak jezteko aulkiak bai Ilean, baina ez euskaldunontzat".

Gozatu ezazue Gaztañerre azokaz, bertako produktuak erosi, begiradaxo bat Plaentxiako behiei eta pentsatu pixkat gure baserritarengan.

Ze erakustaldi egingo dozu Plaentxian?

3 metro eta 30 cm inguruko perimetruek daukan enborra moztuko dot. Nahiko zikua dagan pago egurra izango da, aspaldi moztutakua. Gogorra egongo da seguru. Halakozabaleria izateko ipurdia izan beharra izaten da eta hau be hoixe da.

Zenbat denporan ebagitzia espero dozu?

Halakotan ez dago esaterik. Ordubate buelta hortan ibiliko naiz, baina edozer gauza gertatu leike. Ez dago esaterik zer topatu leiken barruan.

Marka berriren bat suposatzen dau horrek?

Ez, erakustaldixa bakarrik izango da. Egur haundiren bat mozteko eskatu zosten eta halaxe egingo dot. 4-5 metro inguruko enborrak moztu izan dittut haundinak eta Plazentziakua pixkat txikixagua izango da. Real Madridero estadixuan egin neban antzerakua egingo dot. Orduan 3,50 m perimetroke enborra ordubete eta 5 minutuan moztu neban.

Zein da zure markarik onena?

Sekula moztu dan pagorik haundina moztu neban. 5 m perimetroke enborra zan eta 3 ordu, 7 minutu eta 48 segunduko denporan egin neban. 4.800 aizkorakada emon notsazen. Do-

((ENTZUTEKUAK))

Ernesto Ezpeleta "Bihurri"

Perimetro handiko enborra moztuko du zapatuan

pina be pasatu neban. Munduko errekorra daukat orduko horrekin.

Inori zure aizkorarik lagako zontsake?

Aizkolariren bati edo lagako notsake. Zegaittik ez. Aizkora asko dauzkat izan, eta segun eta zeini utziko notsake.

Semia ekarriko dozu zurekin erakustaldira?

Ez, ez da etorriko. Oin eskola kirolakin eta dabil...Nahiko lan serixua izango da. Gerrixak asko sufrituko dau, egur gogorra dalako. Ez da lan erreza izango eta aittakin nahikua izango dozue. ☺

sekula
moztu
dan pagorik
haundina
moztuta
daukat

Perimetro haundiko enborrak ebaten munduko errekorra du Bihurrik.



GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

HNOS. BENITO
ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Zaharren egoitzako berrikuntza lanak zazpi hilabete barru bukatuko dira



Gipuzkoako Foru Aldundiak ohar bidez adierazi duenez, Meseedetako Ama Egoitzako berrikuntze lanak aurreikusitako erritmora doaz eta 2008ko maiatzean amaituko dira.

567.324 euroko aurrekontua duten lan hauek, Aldundiak eta Soraluzeko Udalak finantziatu ditu %50ean. Berrikuntzarekin

oztopo arkitektonikoak desageraraztea, eraikinaren egitura ezgaituentzat moldatzea, emergentzia plana ezartzea eta logelen %25 bakarkakoentzat izatea ahalbidetuko da. Sei logela gehiago egongo dira egoitzan, sasoi batean mojak zeuden lekuan. Hortara, 49 lagunendako lekua egongo da. 🍷

Sagar Errekako biztanleak Udalean izan dira

Sagar Errekako 20 bat bizilagun Udaleko ordezkariekin batu ziren, dituzten beharren berri emateko. Garbitasun eza, alturako zebrabideen beharra eta argiztapen eskasa aipatu zituzten, besteak beste. Alkateak, Udaltzainburuak eta apa-jadoreak entzun zituzten haien eskaerak eta konponbidea topatzeari ekingo diotela adierazi zieten bizilagunei. Sei hilabete barru batzartuko dira berriz, egoeraren jarraipena egiteko.

Bertan behera lagatako autoen kanpaina hasi da

Herrian zehar sakabanatuta dauden abandonatutako dozena bat auto erretiratzeko prozesuari ekin dio Udaltzaingoak. Autoaren jabeari jakinarazpena bidali eta CAT izeneko tratamendu zentroetara bidaliko dituzte. 15 egunean 12 ibilgailu lokalizatu dituzte; horietatik 8 kenduta daude eta besteak bidean dira.

Athletic zaleek bazkaria egingo dute 17an

Soraluzeko Athletic zaleak 11. Bazkari herrikoian batzeko aukera izango dute azaroaren 17an. Txurrukan elkartuko dira 14:30etan eta 34,50 euroko menua jango dute. Izena emateko Gila eta AurreSKU tabernetara jo behar da, eta aurrez 10 euro ordaindu. Azaroaren 13an bukatuko da izena emateko epea.



Marraskilo Tour arrakastatsua

Soraluzeko Mendi itzuliak 120 lagun batu zituen bere lehenengo edizioan. Herritarrek zein kanpokoek hartu zuten parte. Lehenengo mendizaleek 5 ordu eta erdi behar izan zuten buelta egiteko; azkenekoek 10 bat ordu. Denak pozik zeuden bukatutakoan ere.



Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

SAN ANDRES ITURGINTZA

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarran, 10
Telefona 943 75 20 91
Baltagieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE

Udaleko zerga ordenantzak onartu dira

Udalbatza berezian zerga ordenantzak onartu ziren, zenbait alderdi politikok aurretik adostasuna lortu zutelako. Zaborren tasak %14,70eko igoera izango du, mankomunitateak ezartzen duena. Gainontzeko tasak (ibilgailuena, ondasun higiezinena eta obrena) KPI beste igoko dira, %2,7. Komunitatearen onurarako lanek, teilatua eta fatxadak esaterako, %90-95eko hobaria izango dute.

Lapurretak direla eta, alerta Debabarrenean

Debabarrena, Debagoiena eta Urola eskualdeetako dendetan lapurreta arriskuaz ohartarazi du Herrizaingo Sailak. Denda itxi aurretik alarma sentsoreetan ezer arrarorik dagoen ikustea eta hala bada Ertzaintzara deitzea (112) gomendatu du.

Debabarrenaren garapen iraunkorrerako bloga

Debegesak Ibaiarte bloga martxan jarri du, Deba ibaia, energia berri-erreserbiak, kutsadura eta beste hainbat gaiez eztabaidatzeko. Herritarrek beren iritzia, kezak, iradokizunak utzi ahalko dituzte bertan. <http://debegesa.com/garapen-jasangarria-agenda-21/blog>

Oleatik Ezosi Biderainoko errepidea aparkaleku bihurtuko da zapatuan

Gaztañerre Azokara hurbildu ohi den jendeagatik, herria autoz gainezka izaten da, eta aurreneurririk hartzea erabaki du Udalak.

Bial berria, aparkaleku

Oleatik Ezosi Bideraino doan errepidearen errei bat aparkaleku moduan erabiliko da. Zentzu bakarra izango du bideak autotzatzat: Bergara-Eibar norantza. Eibar-Bergara norantza zirkulatzeko herriaren erdigunetik (Baltegieta, Errabal, Atxuri, Errekalde...) edo zeharbidetik joan beharko da.

Aldaketa honen berri emateko metro eta erdiko hiru panel handi ipiniko dituzte Ezosi Bideko errotondan, Etxaburuetara jeisteko bidegurutzean eta Estazioko sarreran. Egunean bertan ere Udaltzainak egongo dira inguruan jendea-ri autoak aparkatzen laguntzeko.

Goizeko 7etan hasi eta iluntziko 8ak aldera arte iraungo du aldaketa honek. Handik aurrera, autoak ohiko aparkalekuetara eraman beharko dira.

Frontoia eta Erregetxea itxita


Frontoian dauden aparkalekuak azokan postua ipiniko duten baserriar eta artisautzatzat izango dira. Zapatuan goizeko 7etarako libre egon beharko da frontoia.

Zapatuan bertan, Etxaburuetatik beherako bidea, Santa Ana eta Kalebarren itxita egongo dira, "Azokara datozenak lasai ibil daitezten" dio Udaltzainburuak.

Aparkatzeko debekua

Azoka egunean Oleatik Ezosi Biderako bidean aparkatu ahal izango bada ere, gainontzeko egunetan debekatuta dago. ☺

Honelakoa da paneletako irudia



MENDATA taberna

Pizzak ● Sukaldetik zure etxera!! ● Kazulitak
Bokadilloak ● ● Razioak

ostirala 08:30 - 22:30
larunbata 08:30 - 22:30
lgandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

EQUIVOCADO GANADU-HARAGIA
CERTICAR
CERTIFICADA DE PRODUCTOS CARNICOS
CARNES DE VACUNO CERTIFICADO

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tlfnoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

Aritz Sudupe

Soraluzeko artzai gaztea



Ez dago sasoi batean beste ardi herriko zelaietan, baina bada. Ez dago sasoi batean beste artzai herrian, baina bada. Aritz Sudupe soraluzetarrak ardiak zaintzea hartu du ofizio: artzaia da. Egunero ardiekin diharduen arren, oraindik ez du artalderik. Hala ere, etorkizunean izan nahi luke eta buru belarri dihardu amets hori bete nahian.

Kaletarra izanda, zela piztu jatzun artzai izateko gogua?

Zaragozan egon nintzan urte batzuetan, eta handik bueltatzeko gogua neukan. Ez neban nahi tailarrera sartu eta bizimodu hori bizitzerik. Zeozer pentsatzen hasi nintzan eta artzai ikasketak egittia bururatu jatan.

Artzai eskolan ikasi zenduan. Zertarako balixo izan dotsu?

Atiak zabaltzeko, basarri munda sartzeko. Serixo hartzen badozu eta benetan gustatzen bajatzu, jarraitu eta sartu egitten zara. Nerekin zerenetatik, nagusixak, familixa bat zeukena eta proiektua pentsautu zeukena jarraitu zeben, ostientzezuak ez.

Ikasketak bukatu eta non jardun zenduan lehenengoz lanian?

Berastegin egon nintzan basarri baten, 300 ardiko artaldiakin; oso

gustora. Bertako basarritarrakin egitten neban lan. Beka bati esker egon nintzan bertan. Gaztaia egitten be ikasi neban. Juan aurretik makila bat erregalatu zosten "Urepeleko artzaie" ipintzen dabena.

Ordutik, nundik nora ibili zara lanian?

Berastegitik Aiara juan nintzan. Han 5-6 hilabete egin nintuan eta oin Arkauten (Araba) nago, Neikerren (Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea). Ardixak aztertzen dittue, adibidez, zela emon esne gehixago... Basarritarrerri hobetzeko aukerak emoteko.

Erreza da lana topatzia?

Bekarik bare ez da erreza, soldata oso bajuak diralako. Basarritarrak berak be nahikua dauka bere burua mantentzen.

Artzai baten eguna zelakua da?

Arkumiak jaiotzen diran sasoi lan asko izaten da. Abendu hasieratik martxo bukaerara. Goizeko 6etan jaiki eta lehenengo ia zenbat

arkume jaiotzen diran begiratu bihar da eta ia ardixak maitte dittuan. Jaten emon eta eguraldi ona bada, kanpora. Gero esniakin gaztaia egitten hasi... Lasaixagua dan sasoi zaintzia bakarrik izaten da.

Zeure artaldia noizko?

Denpora pixkat biharko dot. Altzagan artegi bat ipintzeko asmotan nabil, bertako Udaletxiak erreztasunak emoten dittualako. Artegi txiki bat, prefabrikatutako etxe bat eta bertan gaztandegi bat jartzia da nere proiektua baina ez da erreza diru-laguntzak lortzia.

***Plaentxian
be egin leike,
probetxuzko
lurrak aukeratu
eta basarritarrekin
lurrok erabiltzeko
adostasuna lortuko
balitz. Udaletxiak
lan garrantzitsua
egin leike guzti
horretan***



Daniel Ibabe

Soraluzera etortzen zen artzai transhumantea

Daniel Ibabek 81 urte beteak ditu orain, baina 36 urterekin artzai gaztea zen eta 150-160 ardi inguruko artaldearekin etortzen zen Udalatik (Arrasate) Soraluzera, negua pasatzera. Ondo gogoan dauka gure herria.

Udalatik Plazentziara

“Udalan negu gogorak egiten zittuan eta Plazentzian epeltxuago, Egotzako bueltatik Haginamaltzara-ino imutua lez egiten dau eta.

Lehenengo Bergararik juaten hasi nintzan baina gero, Elgetatik, Sagar Errekatik, Gabolatzetik zihar juaten nintzan artaldiakin Iturbe Zaharrera. Han egon nintzan lehenengo urtietan baina gero, Mendiolan ardiak eta neu Iriben, apopilo. Etxeko modukua nintzan ni han. Hiru bat hilabete pasatzen nittuan, urtarriletik apirilaren erdira arte.

Mendiolan ardiak laga eta neu Iriben, apopilo. Etxeko moduan nintzan ni han

Bildotsak burdixan

Urte baten urte txarra izan zan, janak danak gastatu ziran, eta Argateburura juatia pentsatu neban. Aldasorotxon Julianek esan zoztan han bazeukala hirulau bat egunerako jana eta han geratu nintzan eta edurrak emon. Orduan, idixekin-eta hartu gurdixan bilotsok eta Argateburura juan nintzan. Han beste 15 bat egun egin, eta denporia ondu zanian, berriro beste aldera.

Kordeltxo bat leptik

Behin San Blasetan etxera etorri nintzan, hiru astetik behin etortzen nintzan erropak kanbixatzen-eta, familiarari bueltatxo bat egiten. Eta edurra. Trenik ez eta

Eurixa egiten badau, Plaentzian janak aguro urteten dau, aguro!

autobusik bez. Markinako batekin Mekolalderaino juan nintzan kotxian, baina handik ezin pasautu geratu ginan, izotzagaittik. Baba gorrixa eta urdaixa eruaten neban etxetik. “Hola ez gixona, hola ez!” esan zosten, Mekolaldeko Izarrekuak. “Zela erungot ba, buruen!” “Neuk ipinikostat”. Eta kordeltxo bat ipini zoztan luze, eta pakete bat punta baten eta bestia bestian lotu eta bizkarrian, praillia moduan, edarto juan nintzan.

Plazentzia toki epela

Inora juatekotan, gaur be gaztia izan banintz, Plazentziara juango nintzan. Egixa esaten dotsut, e? Plaentzia da gauza bat epela. Udaberrixan jana aguro urteten da! Eurixa egiten badau, Plaentzian janak aguro urteten dau, aguro!



Soraluzen ez zenduke ipiniko?

Oindio ez dao baldintza egokirik. Gure herriko aldapetan edarki egokitzen dira ardi latxak baina lursailak pribatuak izatia da arazua. Larre txikixak bateratuz gero, lana erraztuko litzake. Berrehun bat ardi ipintzeko baldintzak egongo lirakez eta baita gaztaia saltzeko merkatua be.

Altzagan artegi bat ipintzeko asmotan nabil, bertako Udaletxiak erreztasunak emoten dittualako

Orduan bada aukerarik artzantzarako Soraluzen?

Bai, probetxuzko lurak aukeratu eta basarritarrekin lurrok erabiltzeko adostasuna lortuko balitz. Udaletxiak lan garrantzizkua egin leike guzti honetan, harremanak bilatu eta zehaztuz. Gainera herri bidiak galtzera lagatzen gabiz eta era honetako lanbidiak ingurua garbi mantentzen lagunduko leuke. ☺

ZER TRISTEN DOTSAZU?

Gaztañerretan basarritarrez jantzen zara?

Urtetik urtera herritar gehiagok hartu dute Gaztañerre Azokan sasoi bateko baserritarren jantzia jantzeko ohitura. Umeak eta gazteak animatzen dira gehien.

BELEN ORUESAGASTI
Umezaina



VERONICA GALARRAGA
Administrarria



BEATRIZ GOENAGA
Ingeleseko irakaslea



ANDONI RICO
Ikaslea



Ez daukat ohiturarik. Gaztiak jantzen dira, baina gu honezkero...Hala eta be, politto egitten da jendia jantzitta ikustia. Egun horretan dana izaten da politta, ondo antolatuta. Giruak lagundu ezkeru, oso ondo egoten da.

Oin arte ez naiz jantzi izan baina zapatuan igual bai. Animatuta nago, urtero jende gehixago ikustendoteta jantzitta. Abarkak be erosi dittut gainera! Ambiente politta sorteen da herrixan.

Ez, ni ez. Umiak eta urtero jantzen doguz baina ni neu aurten igual animatuko naiz, trajia lagatzen badoste. Oin arte traierik ez dotenez euki, eta etxian eukitzeko urte osuan, ez dau merezi.

Batzuetan jantzen naiz eta beste batzuetan ez. Nere lagunak be, batzuek bai eta bestiak ez, baina gustatzen jata, bai. Azoka egunian gehixen gustatzen jatana gaztaina erriak jatia izaten da.

KOMIKIXA



**Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak**

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434



HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

Antzerkirako sarrera ordainduko da

Aurten 3 euroko sarrera ordaindu beharko da Poltsikoko Antzerki emanaldietarako. Goizez Udaltxean eta arratsaldez liburutegian egongo dira salgai.



Azaroak 9:

El hijo que vino sin pan

Azaroak 16: Izerdi patsetan

Azaroak 23: Ezker eskuin

Azaroak 30: Busco novio formal... que marido ya tuve!

Gaueko 22:15etan

Liburutegiko hallean.

Santa Zeziliaren omenez musikariak kalera irtengo dira

Azaroaren 22a izaten da musikariaren eguna, Santa Zezilia eguna. Egun horretan bertan Musika Eskolako ikasleek kalejira egingo dute iluntzean eta Galtzagorri txarangak kaleak alaituko ditu. Hilaren 23an, barixakuan, Ezo-ziko Ama Abesbatzak tabernetan eta kalean kantuan egingo du.

Dantza taldearen 50. urteurreneko DVDa salgai egongo da Gaztañerre Azokan

Soraluzen euskal dantzek azken 50 urteetan, eta hainbat urte lehenago ere, izan duten bilakaera islatzen duen DVDa kaleratu du Pil-pilean Euskara Elkarteak, Euskal Jai Batzordea, Urrats Dantza Taldea eta Kontrargi Argazki Kolektiboarekin batera.

Argazkiak eta bideoak, zaharrak eta berriak

Herriko dantzariak utzitako aspaldiko zein azken urteetako argazki eta bideoekin osatutako artxiboaren ondorioa da lan hau. Bost ataletan banatuta dago:

- Dantza taldearen historia: Gerra aurretik hasita gaur egunera arte herriko euskal dantzen historia agertzen duen argazki muntaia.

- Ezo-ziko Ama dantza taldearen saioa 1966ko jaietan.

- Ikastolako dantza taldea eta 70. hamarkadako euskal jaiak.

- 50. urteurreneko ospakizuneko argazki muntaia.

- 50. urteurreneko ospakizuneko bideoa.

Gaztañerre Azokan salgai

Pil-pileanek izango duen postuan jarriko da salgai DVDa Gaztañerre Azokan. 3 euroko prezioa izango du Pil-pilean Elkartearen bazkideentzat, eta 6 eurokoa gainontzekoentzat. Bazkide egiten direnei oparitu egingo diote DVDa. Kaleratutako 400 aleak egunean bertan saltzen ez badira, taberna eta dendetan ipiniko dituzte salgai.

Duo Plaentxi diskoa kaleratu du

Urte askoan handik hona emanaldiak ematen ibili ondoren, kanturik arrakastatsuenak batzen dituen disko kaleratu du Duo Plaentxi bikoteak. Mexikoko eta Hego Amerikako herrialde askotako 14 kantu abesten dituzte, gitarrekin lagunduta. En mi Viejo San Juan, Veracruz, El crucifijo de Piedra eta beste hainbat.

10 euroko prezioa dauka eta Txoko eta Bolia tabernetan dago salgai.



GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



KM
Desing

Diseinua eta Formera

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Antxintxika krosean

10. lekuan iritsi zen lehen soraluzetarra



Mendiolako industrialdean hasi zen lasterketa

Azaroaren 3an egin zen 10 km luze dituen Antxintxika Krosa, Soraluze eta Bergara bitartean. Hamar herritarrek hartu zuten parte eta Zigor Esnaolak 10. postua lortu zuen, helmugara 35 minutu eta 14 segundora iritsita.

| | |
|-------------------------|-------|
| 10. Zigor Esnaola | 35:14 |
| 47. Koldo Azkorbebeitia | 40:29 |
| 66. Iker Torrientes | 42:08 |
| 70. Carlos de Cos | 42:30 |
| 132. Carlos Gonzalez | 46:12 |
| 142. Javier Gabilondo | 47:13 |
| 167. Mikel Hernandez | 49:47 |
| 190. Jesus Uzin | 51:55 |
| 213. Iker Uzin | 59:00 |
| 214. Mariasun Rascon | 59:01 |

Karakateko igoera azaroaren 17an izango da

Hamalagarrenez egingo da Elgoibartik Karakaterainoko igoera hilaren 17an. Elgoibarko Morkaiko Mendi Taldeak eta Urgazi Triatloi Taldeak antolatuta,

2,5 kmko igoera eta 700 metroko desnibela ditu probak. Parte hartzaileak goizeko 11etan irten-go dira Plaza Handitik.

EMAITZAK

PILOTA

| | |
|----------------------|----|
| Capellán - Nalda III | 10 |
| Del Rey - Laskurain | 18 |

FUTBOLA

| | |
|-------------------------|----------|
| Urola 3 – Sora 1 | (Erreg.) |
| Ikasberri 2 – Sora 0 | (Jub.) |
| Sora 6 – Arizmendi 4 | (Kad.) |
| Sora 2 – Amara Berri 3 | (Erreg.) |
| Aretxabaleta 2 – Sora 0 | (Jub.) |
| Sora 5 – Bergara 0 | (Kad.) |

AGENDA

PILOTA

Domeka 11,
17:00etan Átano II Iean (ETB1)

Capellán - Nalda III
Del Rey – Laskurain

Martitzena 13,
19:00etan, Egiako txapelketa

Urtasun – Jauregi
Elurbe - Otxandorena

FUTBOLA

Zapatua 10,
16:00etan Antzuolan

Antzuola – Sora (Erreg.)

Zapatua 10,
11:00etan Ézozin

Sora – Bergara (Jub.)



**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



kutxa

gizarte ekintza

ARRANO
tabernia

Giro euskalduna eta sanua

ETORRI ETA GOZATU



etxera

Telefona 75 24 09

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK



PASCUAL CHURRUCA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruca.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



ZORION AGURRAK



Mayara, Jacqueline eta David

Azaruan 2xan, 5 urte
Azaruan 10ian
Azaruan 16xan, 2 urte
Zorionak!
Familiakoen partez muxu handi bat



Juani Yanguas eta Jose Manuel

Azaruan 28xan eta abenduan 18xan
Zorionak!
Gozatu urtien juanakin!



Ezzi Alberdi eta Oier Iglesias

Azaruan 6xan eta 9xan
37 urte eta urtebete
Zorionak bihotz-bihotzez bikote!
Muxu eta besarkada handi bana
Etxekuen partez!




Ihart Arluziaga

Azaruan 4an 29 urte
Zorionak potxola!
Muxu handi bat eta
besarkada bero bat



Irati Trebiño

Urrian 18xan 29 urte
Zorionak potxola!
Ondo pasatu
eta muxu handi bat



Unai

Azaruan 26xan
Zorionak txapeldun!
Etxekuen partez



Manex Osinaga

Azaruan 21ian, 4 urte
Zorionak!
Muxu handi bat
etxekuen partez



Iosu Perez

Urrian 21ian, urte bi
Zorionak prexioxo!
Aurten ez eragin hainbeste
korrika egiterik!



Nerea Martin

Azaruan 9xan 11 urte
Aupa rubia!
Muxu asko etxekuen
partez.

jaiotakoak

PERU ARISTI ARRIEN



hildakoak

IGNACIO IÑURRIETA GOIKOETXEA
AUREA MARTINEZ ESCOBEDO



LEHTAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Ze esanahi gauka Txurruka baserriaren izena?**

- 1- Ur jauzia
- 2- Zurrut-ka
- 3- Mendiko etxea

► **Saria:**
Dantzako DVDa eta Pil-pileaneko produktoak

► **Irabazlea:**
Borja Olaizola

► **Barandiaranen indusketak**

1922xan egin zittuan Jose Migel Barandiaranek indusketa arkeologikuak Karakate-Irurutzeta mediterranean. Trikuharri, tumulo eta bestelako gune megalitikuak topatu zittuan baina ez zeban bilaketan sakontzerik izan. Gaur egun, izendatuta dare aurkikuntza danak.



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Astiazaran

EZKON AURREKO DESPEDIDA 1954AN

1954an, edo urte baten gora-beheran, ezkondu zan Rosa Mari Suárez Gilanekua. Hari despedidia egitteko 27 neska gazte elegante jantzitta batu ziran lagun taldian.

Lekuari ondo begiratuta ikusi leike lehengo zubi nagusixak zelako zabaleria zeukan eta zelakua zan, baita gaur egunian ibai ondoko pasealekua dagan tokixan zeguan barandaua eta lekua be. Atzeko eraikinak, oster, ez dira bape aldatu.

Goiko ilaran, ezkerretikan hasitta: Miren Aizpiri, (ezezaguna), Carmen Campos, Consuelo Bolunburu, María Teresa Campos, Mari Paz Eguren, Araceli Arizaga, Juani Arrizabalaga, Juanita Placencia, Marines Arrillaga eta Igone Izagirre.

Erdiko ilaran: Mari Carmen Izagirre, Mari Sol Olaizola, Mari Asun, Badiola, Carmentxu Larrañaga, Ana Mari Muñoz, Rosa Mari Suárez, Begoña Arana, Charo Orueta, Miren Alberdi, Elena Etxaniz eta Carmentxu Suárez.

Beheko ilaran: Nieves "Barrenetxe", Juanita Olaizola, Milagros, Etxaniz, Mari Luz Orueta eta Julita Etxaniz. ☺

Egin zaitez bazkide

Dagoeneko
330 bazkide gara

Abantailak:

Soraluzeko komunikazio, euskara eta kultura proiektuak sendotzen lagunduko duzu.
Deskontuak izango dituzu Pil-pileanek antolatutako ekintza eta produktuetan.

Idatzi pilpilean@euskalnet.net helbidera edo deitu **943 75 13 04** telefonora, eta geu jarriko gara zurekin harremanetan.



GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

ELIZPE

Hortz Klinika

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

- Empapelatuak
- Estukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialak

Tif.: 943 75 1324
Mug.: 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21 50 Posta Kutxatila
Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze

Lakuesta

Optika

Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

ARMENDIA

JATETXEA

Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

MABE

ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errebal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.

Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

TXOKO KAFETEGIA

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

GOGORTUZ

Fisioterapia Zentrua

**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupezioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Ordutegia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022